

# BERRIZTAPEN TERAPEUTIKOEN FITXA

http://www.euskadi.net/sanidad

55. Zkia. - 2001

## KETIAPINA

**SEROQUEL**  
Zeneca Farma

25 mg-ko 6 konprimitu.  
Prezioa: 831 pta.  
100 mg-ko 60 konprimitu.  
Prezioa: 15.951 pta.  
200 mg-ko 60 konprimitu.  
Prezioa: 23.051 pta.



### TRATAMENDUAREN KOSTUA

Ketiapina 300 mg/egunean= 650 pta.  
Klozapina 300 mg/ egunean = 321 pta.  
Risperidona 6 mg/ egunean = 649 pta.  
Olanzapina 10 mg/ egunean = 874 pta.  
Haloperidol 8 mg/ egunean = 60 pta.

### INDIKAZIOAK

Eskizofreniaren tratamendua.

### KOMENTARIOAK

Ketiapina eskizofrenia tratatzeko merkaturatu den ez-ohiko antipsikotiko berri bat da. 5HT-2a motako serotonina-erzeptorengan aktibitate antagonista handia du eta D2 motako dopamina-erzeptorengan aktibitate moderatua erakusten du; bi aktibitate horiek bereziki, markatzen dute ketiapiaren akzio antipsikotikoa.

Sei asteko iraupena izan duten entseu klinikoetan, eta eskizofreniaren sintoma baikor eta ezkorren hobekuntzari dagokionez, ketiapiak haloperidol eta klorpromazina bezain efikaza dela erakutsi du. Sarrien gertatu den efektu kaltegarria logurea da (> %10); beste efektu kaltegarri batzuk (%1-%10 inzidentziarekin): astenia, jarrera hipotentsioa, takikardia, ahoaren lehortasuna, dispepsia, idorreria, pisu handitzea, zorabioa, rinitisa. Haloperidol eta klorpromazinarekin konparatuta, ketiapiak honako abantailak ditu: ez du sortzen ia efektu extrapiramidalik eta ez du igotzen ia prolaktina-konzentrazio serikorik; haatik, beste horiek baino ahoaren lehortasuna eta pisu gehiago hartzea eragiten du. Entseu klinikoetan, ketiapiak ez du sortu ez leukopeniarik, ez neutropenia larririk, ez agranulozitosisik; klozapinak, berriz, bai.

Ketiapiaren erabilera gomendatu baino lehen, iraupen handiagoko, diseinu hobea eta eskizofrenia errefraktaria duten pazienteekin entseu klinikoak egin beharko lirakeke. Jakiteko zein den ketiapiaren tokia eskizofreniaren farmakoterapian, beharrezkoa da baita ere, entseu klinikoak egitea beste ez-ohiko antipsikotikoekin (klozapina, olanzapina, risperidonarekin) konparatuz.



▼ OSO INTERESGARRIA ▼ INTERESGARRIA ▼ ERABILGARRIA NOIZEAN BEHIN ▼ EZ DAKAR EZER BERRIRIK ▼ ESPERIENTZIA KLINIKO GUTXIEGIA

# FICHA DE INNOVACIONES TERAPEUTICAS

http://www.euskadi.net/sanidad

N.º 55 - 2001

## QUETIAPINA

**SEROQUEL**  
Zeneca Farma

6 comprimidos de 25 mg.  
Precio: 831 ptas.  
60 comprimidos de 100 mg.  
Precio: 15.951 ptas.  
60 comprimidos de 200 mg.  
Precio: 23.051 ptas.



### COSTE TRATAMIENTO

Quetiapina 300 mg/día= 650 ptas.  
Clozapina 300 mg/día= 321 ptas.  
Risperidona 6 mg/día= 649 ptas.  
Olanzapina 10 mg/día= 874 ptas.  
Haloperidol 8 mg/día= 60 ptas.

### INDICACIONES

Tratamiento de la esquizofrenia.

### COMENTARIOS

Quetiapina es un nuevo antipsicótico atípico comercializado para el tratamiento de la esquizofrenia. Su acción se debe principalmente a una actividad antagonista intensa a nivel de receptores serotoninérgicos 5HT-2a y a una actividad antagonista moderada a nivel de receptores dopaminérgicos D2.

En ensayos clínicos de 6 semanas de duración ha mostrado una eficacia similar a haloperidol y clorpromazina en la mejora de los síntomas positivos y negativos de la esquizofrenia. Los efectos adversos más frecuentemente observados son somnolencia (>10%) y con una incidencia del 1-10%: astenia, hipotensión postural, taquicardia, sequedad de boca, dispepsia, estreñimiento, aumento de peso, mareo y rinitis. Presenta la ventaja frente a haloperidol y clorpromazina de apenas producir efectos extrapiramidales ni incrementos en las concentraciones séricas de prolactina; sin embargo, produce mayor sequedad de boca y aumento de peso. A diferencia de clozapina, en los ensayos clínicos no se han producido leucopenia o neutropenias graves ni agranulocitosis.

Antes de recomendar el uso de quetiapina es necesario realizar ensayos clínicos de mayor duración, mejor diseño y que incluyan pacientes con esquizofrenia refractaria. También son necesarios ensayos comparativos frente a otros antipsicóticos atípicos como clozapina, olanzapina y risperidona para establecer su lugar en la terapéutica.



▼ MUY INTERESANTE ▼ INTERESANTE ▼ EVENTUALMENTE ÚTIL ▼ NO APORTA NADA NUEVO ▼ EXPERIENCIA CLÍNICA INSUFICIENTE